

'Egin'-en kontrako operazioa

# «Adierazpen askatasuna zauriturik»

Euskal Herriko herri aldizkari, irriti eta aldizkari gehienek ere beren gaitzespena azaldu dute 'Egin'-en kontrako operazioaren aurrean. Adierazpen askatasunaren kontrako erasoa izan dela azpimarratu dute guztiek, eta era berean 'Egin'-eko langileen aldeko elkartasuna adierazi. Ane Sarasketa-Saioa Ojangueren / Donostia

## «Euskararen munduan mugitzen garen guztiok ez ote gaude alde aurretik kondenatuak?»



Joan Mari Torrealdai  
«Jakin» aldizkariko zuzendaria

Balorazioak ez dakit malla ezberdinak dituen, baina gutxienez fase ezberdinak bai. Lehenengoa da harridura, momentuan enteratzen zarenean. Bigarrena da bat-bateko erreakzioa: hau astakeria, hau basakeria. Hirugarrena da pentsatzea plan baten barruan dagoela. Desafio handi bat dela pentsatzea eta ez dela bakarra eta ez dagoela isolatua. Gutxienez urtebete hasitako desafioa da. Mahai Nazionala barruan dago... eta burua eta bihotza jotzen dute, eta beraz odolaren mugimendua antolatzen duen guztia jotzen dute; Mahai Nazionala jo dute, hau jo dute, AEK jotzen salatu dira... Ni neu toki ezberdinetan hitzaldia ematen izan naizenean, *El libro negro del euskera* dela eta, sumatu dut halako beldur bat. Ea ez ote den hau guztia saio nagusi bat, eta euskararen munduan mugitzen garen guztiok ez ote gauden alde aurretik kondenatuak. Susmo txarra sartzen da hemen, susmoan jartzen da mundu guztia, eta orduan kolpea jotzea erraza da. Beraz nire galdera da, eta hurrengoan zein?

## «Badirudi dena posible dela»

Ainhoa Oiarzabal  
«Aiturri» aldizkariko zuzendaria

Azken finean egunkari bat ixtea izan da, eta beste kontu batzuk erabiliz egunkari bat eta irriti bat itxi dute. Kontua da orain ez dela egunero aterako, eta informazio esparru bat faltako dela. Hori gaitzespen dugu. Dena posible dela dirudi, baita komunikabideak ixtea ere.

## «Gauzak arintasun handiz ari dira egiten»



Inaki Iratzabalbeitia  
«Eihuyarrek» zuzendaria

Egia esan, oso larria iruditzen zait, oso larria hainbat ikuspegitatik. Lehenik eta behin, komunikabide bat ixtea balizko delitu batzuk egin dituztelako... Hori oso larria iruditzen zait. Eta, bestetik, daukagun oinarritzko eskubide bat kolokan jarri delako, alegia, uesteko erregulazioa. Jada erduntzat jo dituzte guztiak, eta ez atxilotuak bakarrik. Egin-en lanean ari diren guztiak baizik. Horretaz gain, ez dituzte kontuan hartu egoera honek sor ditzakeen ondorio pertsonal larriak. Hor kolektibo handi bat dago lanean, eta pertsona horiek etorkizuna ez dute oso garbi.

Beste ikuspegi batetik ere bada kezkatzeko arrazoirik. Izan ere, azken aldi honetan euskararen inguruan hainbat presio gertatu dira: AEKren kontuen blokeoa eta abar. Alde horretatik, Euskal Herriaren dauden aurkako ahotsak isiltzeko urrats kualitatibo handia eman du Espainiako Gobernuak. Badakigu nondik hasi den, baina kezkatzeko da ez dakigula non bukatuko den. Gauzak arintasun handiz egiten ari dira, eta arintasun horretatik, edozein lekutara irits gaitzke.

## «Adierazpen askatasunaren kontrako eraso bortitza da»



Alberto Irazu  
«Iruñeko» aldizkari zuzendaria

Egin irritia eta Egin egunkaria itxi izana salatuz komunikatu bat kaleratuko dugu Donostiako *Iruñeko* eta Bagera elkartearen izenean. Bertan, elkartasuna adierazi nahi diegu bi komunikabide horiei eta bertan lanean ari diren langile guztiei, adierazpen askatasunaren alde egin beharra dagoela pentsatzen dugulako. Oso larria da gertatu dena. Egin egunkaria eta irritia iztea. Adierazpen askatasunaren eskubide horren kontrako eraso bortitza eta onartezina izan da. Justifikazina da bi medio isiltzea. Hori argi daukagu.

## «Goitik behera astindu da adierazpen askatasunaren oinarria»



Jose Manuel Irigoien  
«Titi-Tapa» aldizkari zuzendaria

Nahiko iritzi zabala izan da eta ahobatekoa egitan demenziala izan da here-negun gertatutako. Orduan itxi izana ikaragarritzko zartada da komunikabide bati ematen zaiona, eta horrek noski goitik behera astintzen du adierazpen askatasunaren oinarria bera aplikatzea ahal den edo ez. Aplikatzea ahal den edo kontzeptu hori estatu espainolean bermatuta dagoen sikiera parametro horietan. Alde horretatik ulergaitza eta erabat kondenagarria da. Hortaz aparte gelditzen da elkartasuna adieraztea Egin egunkari eta irritiko langileei.

Ikusiak ikusita azken urteotan politika mailan ikusten da demolazio prozesuak urrats handia eman duela aurrera, eta bertatik ba etorkizunean, luzerako, Egin-ik gabe ikusiko ditugula kioskoak dirudi. Hala ere, zorionez, badago beti herri baten frentean halako komunikabideak sustratu sozial zabala dutenak, nahiz eta korronte ideologiko konkretu baten inguruan izan, hala bere dinamismoaz jabetu eta Egin kabezera bezala agertu ez ordezko elementuak agertu dira. Etorrizuna seguruaski nahiko beltz etorriko da, nahi duguna baino beltzago.

## «Egin'-ek osatu egiten du iritzien espektroa Euskal Herrian»



Joxe Aranzabal  
«Arrasate Press» aldizkari zuzendaria

Ez dakit zein arrazoi gongo diren horren azpian. Niri iritzi, adierazpen askatasunaren kontrako eraso bat da Euskal Herrian. Egon zaitezke ados edo ez Egin-ekin, baina Egin-ek sektore bat ordezkatzen du, osatu egiten du iritzien espektroa Euskal Herrian, eta egon egin behar da ez badu merkatuak ezetz esaten behintzat. Bestela, orain egin dena nahastea da. Pertsona batzuk harrapatu badituzte ez dakit zer egiten, erantzukizuna izan beharko da gizabanakoarena eta ez erakundearena, kasu horretan egunkariarena. Garbi daukat adierazpen askatasunaren kontrako eraso bat dela. Gero ematen diren arrazoiak, seguruaski arrazoi horiek beste egunkari batzue-

tan ere. Zer dagoen jende hori atxilotzeko ez dakit. Baina erantzukizunak haiek badute ez du egunkariak ordaindu beharrik.

## «Beharrezkoa da 'Egin'»

Allande Etxart  
«Xiberuko Boza» irritiko idazkaria

Orokorrean ez dugu onartzen irriti baten eta komunikabide baten itxia, zeren justizia ez da beharrezkoa komunikabide bat itxteko edozein kasutan. Eta langileak langabe izatea, eta komunikabidea eta ezetzatzea, hori salatzen dut, justizia eta ibilimolde hori salatzen dut.

Egin irritiak zabaltzen ditu Iparraldeko Euskal irratien programa batzuk, eta baita informatiboak ere. Beraz, gurekin lan egiten duen irriti bat da Egin. Beraz elkartasuna adierazi nahi diegu. Egin egunkaria asko estimatzen dugu. Ezkerreko ikusmolde eta nazio ikuspegi oso informazio turri berezita baita. Bai Euskal Herriko bai nazioarteko berrie buruz, eta hortan beharrezkoa da. Bakarrenetarikoa izango da hain sakonki aztertzen dituen. Beharrezkoa da Egin.

## «Gaur adierazpen bide bat gutxiago izan dugu kioskoetan»



Ane Lardi  
«Lau haizetara» aldizkari koordinatzailea

Lehenengo eta behin elkartasuna adierazi nahi diegu Egin egunkariari eta irritiari medio bezala, gu ere medio garelako. Justizia alorrean uste badute finantzak edo bestelakoak ez dakit nora joan diren, eta kontseilua atxilotzen badute, hiri ongi edo gaizki dagoen kritikagarria da. Baina hortan ez gara sartuko. Dena den, horren izenean medio bat izatea, hiri adierazpen askatasuna aipurtzea dela uste dugu, eta gaur egun ezin da hori onartu. Gaur adierazpen bide bat gutxiago izan dugu kioskoetan, eta demokrazia batean behintzat, horrek egon egon behar duela uste dugu. Orduan, alde horretatik elkartasuna eta ez onartze hori adierazi nahi dugu.

## «Komunikabide estatalista eta erregionalistek meperatzen gaituzte»



Juen Lekunza  
Donostia eta Loiolako Herri Irritiko zuzendaria

Egin-i esker oneko erantzuna eman nahirik, gogorazari nahi dut 1978ko urriaren 8an egunkari horretan argitaratu zen txistea (ikus behiko argazkia). Garai hartan Madrilen Herri Irratia zentralizatzen ahalgintzen ari ziren. Marizikin irratia entzuten ari zen: «Herri Irratian, denok (berriz) erdara ikasten». Aditzaile onari, hitz gutxi.

Besteak beste, kezkarria eta kontu serioa iruditzen zait Euskal Herrian euskaraz pentsatzen duen komunikabide bat itxia (hobeto esan, bi: Egin irratia ere bai).

Komunikabide estatalista eta erregionalistek meperatzen gaituzte.

Egin-ek gehiegi sakontzen zuen euskal nortasunean. Eta argi dago hiri ez dela interesgarria. «Berriz, erdara ikasten».

